

Astelehena

Noizkoa da etorkizuna, nondik dator. Etorkizuna bera ere, ez da batordea. Zer da etorkizuna egunero denderen atarian eseri eta eskaneatzen denerentzat, zer da etorkizuna etxeak jasotzen dituen enpresariarentzat, zer da etorkizuna kalera joango dela esan dioten langilearentzat, zer da etorkizuna bihar goizean Lanbidera joan eta txartela berritu behar duenarentzat. Parentesi artean jarri behar nuen, baina ez, paragrafo bat merezi du.

Langabetuen testigantzak falta ditugu.

Noizkoa da etorkizuna bihar goizean Lanbidera

joan eta txartela berritu behar duenarentzat, joango ote zaio gogoa gaztaro-ko urteetara, botako ote dio errua bere buruari, hasiko ote da makakorroka, txikitan bezala, bakarrik dagoenean, galdu duen guztiagatik, egin ez duenagatik, gaizki egin duenagatik, sentituko ote da ergel eta motz mahaiaz bestaldeko funtzionarioaren aurrean, ez dituelako legeak ezagutzen, ez dituelako baldintzak ulertzen, ez dakielako makinariak nola funtzionatzen duen, izango ote du bere burua trenari botatzeko pentsamendurik sekula, harrrapatuko ote du azpian igandeko tristuraren zamak, sartuko ote zaio Lanbideko bulego- ei su emateko gogoa.



Jira

Xabier Gantzarain

Zer da etorkizuna, noizkoa da etorkizunaren ideia?

Txillardegia

Euskara, independentzia, amnistia, presoak, ETA, herria... zer ziren ulertzen hasi ginenean, galdera askoren erantzunak hasten ziren bere izenarekin. ETArek sortzaileetako bat, ETArri izena jarri zion gizona eta ia-ia hil arte gure herriko politikan ekarpenak egin dituen gizona joan dira pertsona bakarrean heriotzarekin. Gehiago oraindik: akademiak onartu ez arren, euskaltzain bat joan zaigu. Hiru aldiz baztertu zuten Euskaltzaindiak soziolinguistikaren oinarriak ezarri zituen gizona, euskal eleberrin modernoaren sortzailea. Euskaltzainak euskara zaintzen duena



Bira

Onintza Enbeita

esan nahi badu, behintzat, euskaltzain osoa izan da Txillardegia. Inork baino hobeto zaindu du euskara: hitz eginez, irakurri, idatziz, biziz eta maitatuz. Berari zor diegu Euskal Herriaren Euskaraz bizirik egotea ere, eta haren sortzaile izan bazen, euskaraz bizi den Euskal Herria nahi izan zuelako izango zen. Pena ematen diti justu orain hiltzeak: bere ametsa egia bihurtzeko pauso historikoak eman direnean. Nik pentsatzen nuen Euskal Herria burujabe eta euskalduna denean Txillardegia edo Jokin Gorostidi edo etxabetarrek han egongo zirela, baina ez da hala izango. Gaur inoiz baino argiago ikusten dut Euskal Herri burujabe eta euskalduna berrengana: bidea hasi zutenei zor diegu bidearen amaieraraino iristea.

Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: Bidera

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g,

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 15/01/2012

Exemplar: 2.568

Editeur: Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxelo Otamendi

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labour:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrarrea@berria.info.

berria

Etsai jauna, 'buenos días'!

Pako Aristi Idazlea

A maiurrek Espainiako Juan Karlos I.a erregeari abenduan egindako bisita izan eta aspaldian ikusi dudana albisterik tristeena, oraindik ere irauten didan gorputzaldi txar bat utzi zidana. Umorez harnezakeen, baldin eta abertzaleen artean, kaleko zein goi-mailakok hala hartu izan balute. Baina irakurri ditudan adierazpen eta artikuluetan ez da horrela izan, aldiz: oso goi mailako enkontru bezala definituta izan da, eta gure herriaren hedatzen ari den nahasmenean aldirik aldi goia harrapatzen ari dela begitintzen zait.

Historikotzat definitu dute hedabideek. Laster ahaztua geratuko dela iruditzen zait, ez bada gure ankerkerien zentzupediara pasatzen. Baina okerrean da hedabide abertzale, ezkertiar eta herrikoiek ere antzeko kobertura eman diotela. «Bilera historikoa» izan ei zen, «zama historiko handia eduki zuen enkontrua». Azpimarratu zen, baita ere, 18 urte zirela erregeak abertzale bat errebitzen ez zuela eta abar. Oso kronika epel eta akritikoa izan ziren denak, ala gehienak.

Erregeari garrantzi eta zilegitasun hori ematea morrontza historiko baten azken aitortza iruditzen zait. Historiaren definizioa errege baten hartumenean finkatzea, eta gehiago errege hori estatu zapaltzailearen ordezkaria denean, menpekotasun kroniko baten sintoma da. Historia ez al zuen herriak egiten? Erregearekin egin behar dena da Chamomixera bidali bere familia guztiarekin, xentimo-

rik gabe, gehiago ez itzultzeko. Hori litzateke historikoa. Gauza gogorragoak esaten hasi gabe.

Bilera osteko deklarazioek ere asko harritu ninduten. Xabier Mikkel Errekondok «inplikazioa» eskatu zion erregeari, gogo gabe eta legeak beharturik bildu zen erregeari. Kasik erabakitze eskubidera garaman lehen pausozat uler zitekeen bilera. Utikan! Erotu gara? Espainiako erregeak Euskal Herriari inplikatu diren bakoitzean suntsipena etorri da, biolentzia, odola eta eskubide guztiak murrizketak.

Iñaki Antiguedadek, berri, Rajoyri «estatu gizon» bezala portatzeko eskatu zion, «estadista» izan dadin. Ez ba hori esan etsaiari! Estatu gizon portatzen bada, ez dizu zuri utziko beste estatu bat sortzen. Harekin ulertzen «kondena-tuak» omen gaude. Nik kontrakoa esango nuke: politikak daukan ahalmen izugarriak ulertzen ez ditugulako gaudela kondena-tuak etsaiari laguntza eskatzera.

Politikan dibilenak etsaia nor den oso ondo jakin behar du, etsaia zer den, zertan dabilen eta zer helburu dituen, zure helburuen kontrakoak baitira. Eta etsaia nola tratatu liburu askotan idatzia izan da; gehiago irakurriko bagenu! Hona laburpen bat:

1-Etsaiari ez zaio laguntza eskatu behar inoiz.

2-Etsaiari ez zaio eskua luzatu behar, moztu egingo dizu eta.

3-Etsaia ez da laudatu behar, berriki Otegi egin duen bezala, esan-ke Aznarren keinua, ETArri Movimiento Nacional Vasco de Liberación deitu zioneko, ez guntuela behar bezainbeste estimatu hartu.

4-Etsaiak informazio guztia dau-

ka zutaz, beraz, babestu egin behar duzu zeure burua.

5-Ez zaio erantzun behar, soberan dagoela esateko ez bada. Ez alferrikako lanik hartu, Erregearen Gabonetako mezua aztertu zuten euskal politikoko guztiak egin bezala.

6-Ez da etsaiaz fidatu behar, zu engainatzen saiatuko baita. Eten-gabea da gure politikoen letania tristetza, «engainatu egin gintuzten» esanez belaualdiz belaualdiz.

7-Ez zaio esan behar zer egin behar duen, horrela agertzen ari baitzara zure beharrik zeintzuk diren, eta hori erri-dikulo totala da politikari. Zure ahuldadea erakusten duzu, batetik, eta bestetik berak badaki, ez bazekien ere, zuk zer behar duzun, eta justu kontrakoa egingo du, bere helburua ez baita zuri laguntzea, zu suntsitzea baizik.

8-Etsaia ez da seduzitu behar, berarentzat gauzarik seduktoreena zu desagertzea baita. «Este es un mensaje para la sociedad española (...) para que haga lo que corresponde con el objetivo de llevar a buen puerto este proceso», esan zuten Errekondok.

9-Etsaiak ez dizu ezer zor. Barka-

mena eskatuko dizu zu baino azkarra izategatik historian zehar? Raxoyk Euskal Herriari zerbait zor diola irakurri nuenean, ondoan «flipante» idaztea baino ez zitzaidan atera.

Etsaiari egin behar zaiona da errealtate paralelo bat eraiki bere muturren aurrean, berak eskurik sartu ezingo diona, kontrolatuko ez duena, suntsitu ezin ahalko duena; orduan errespetatuko du euskaldunok erabakitzen duguna, bera baino indartsuago garelako ikusten duenean, guri aurre egitea berarentzat suizidioa dela ulertzen duenean.

Horretarako egin behar da etsaia deslegitimatu, prestigioa kendu, errespetoa ezabatu, bere sedukzio ahalmena ahuldu, ez dadila interresgarria izan, erabakiorra, ezinbestekoa guretzat, protagonismoa kendu gure gatazkarren konponbidean. Bere erakundeak ez zaizkigula interesatzen adierazi behar da hauteskundeetara ez joanez; indar metaketa berdin-berdin egin daiteke hauteskundearen kontra, eta askoz ere eragin korragoa da, bortitza goa, tintoagoa eta basatiagoa.

Hala dio Zizek filosofoak: «Zergatik gobernauk izuaren mende jarritzen dira abstentzio masiboaren aurrean? Onartu beharra daukete bere boterea erabiltzea posible dela, soilik biztanleek onartzen badiete. Botere hori onartzen da baita hauteskontzietan bere erretxazoa jarrita ere. Baina abstentzioa ukamen intrapolitiko baina haratago doa: erabakitze-markoa bera ukatzen duelako».

Justu ezker abertzalearen desestrategia egiten ari denaren kontrako guztiak. Espainiako errege bati egin behar zaiona da gure lurraldean daukan ordezkari guztiatik ezabatu, Balentziaga museoa kasu, «persona non grata» izendatu lurralde osoan, eta hona etortzea debekatu, gogo guztiak kendu, arrotzu.

Baina ez; Errekondok «Jauna, buenos días» esan zion. Sustainbio bat falta izan zitzaien; agian horrekin beste sustainzio bat hartuko zuten errege-saldak.

Etsaiari egin behar zaiona da errealtate paralelo bat eraiki bere muturren aurrean; orduan errespetatuko du euskaldunok erabakitzen duguna